Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2021eko urriaren 4a, astelehena — 190 — Lunes, a 4 de octubre de 2021

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### INGURUMENEKO ETA OBRA HIDRAULIKOETAKO DEPARTAMENTUA

*Anoetako A-1 «erdialdea» areako hiri-antolamenduko plan bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa.*

1. *Aurrekariak.*

Anoetako Udala A-1 «Erdialdea» arearen Hiri Antolamenduko Plan Berezia izapidetzen ari da. Plan horrek Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean hiri-lurzoru eremu horretarako definitutako antolamendu xehatua aldatzen du.

2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duenak, ezarritakoaren arabera, hiri-antolamenduko plan bereziek ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura bete behar dute, ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.2.c artikuluan xedatutakoaren arabera.

Anoetako Udalak, 2021eko apirilaren 8an jasotako idazkiaren bidez, «Erdialdea» A-1 Arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-txosten estrategikoa egiteko eskatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiari, eta, horretarako, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren (HAPB) Hirigintza-dokumentua eta ingurumen-dokumentu estrategikoa (DAE) igorri zituen.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi zen ez zela sartu eragin akustikoari buruzko azterlana, 2012ko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak, EAE kutsadura akustikoari buruzkoak, 37. artikuluan eskatzen duena. Ondorioz, Udalari eskatu zitzaion dokumentazioa osatzeko aipatutako azterketa akustikoarekin. Anoetako Udalak, 2021eko ekainaren 21ean, eragin akustikoari buruzko azterlana bidali zuen, eta Plan Bereziari erantsi zaio eranskin gisa. Horrenbestez, ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura hasi da, eta, horren bidez, erabaki behar da, eragindako administrazio, pertsona eta erakundeei kontsulta egin ondoren, eragin nabarmenik izan dezakeen ingurumenean, eta, beraz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren mende jarri behar den edo ez, betiere ingurumen-txostenak ezartzen dituen baldintza estrategikoetan.

2. *A-1 «Erdialdea» Arearen Hiri Antolamenduko Plan Berezian proposatutako helburuak eta antolamendua.*

«Erdialdea» A-1 Arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren xedea da A-1 Area horretan mugatutako Espazio Libreen Sistema Orokorraren antolamendu xehatua aldatzea, espazio estali berri bat gaitu ahal izateko, zentzu horretan dagoen gizarte-eskaerari erantzuteko. Espazio horren ezaugarriak 2018an egindako partaidetza-prozesu baten bidez zehaztu ziren. HAPBk indarrean dagoen antolamenduaren gainerako aurreikuspenak mantentzen ditu, lurpeko aparkaleku bat garatzeko aukera barne, baina ibilgailuentzako eta oinezkoentzako sarbideak bertara birkokatzea planteatzen du.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y OBRAS HIDRÁULICAS

*Informe ambiental estratégico del plan especial de ordenación urbana del área A-1 «erdialdea» de Anoeta.*

1. *Antecedentes.*

El Ayuntamiento de Anoeta se encuentra tramitando el Plan Especial de Ordenación Urbana del Área A-1 «Erdialdea» que modifica la ordenación pormenorizada definida en el Plan General de Ordenación Urbana en dicho ámbito de suelo urbano.

De acuerdo con lo establecido en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental y en el Decreto 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas, los planes especiales de ordenación urbana se encuentran sometidos al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, según lo dispuesto en el artículo 6.2.c de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental.

Mediante escrito recibido el 8 de abril de 2021, el Ayuntamiento de Anoeta solicitó, a la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, la emisión del informe ambiental estratégico del Plan Especial de Ordenación Urbana del Área A-1 «Erdialdea», remitiendo a esos efectos el documento urbanístico y el documento ambiental estratégico (DAE) del Plan Especial de Ordenación Urbana (PEOU).

Tras el análisis de la documentación aportada, se observó que no se había incluido el estudio de impacto acústico exigido en el art. 37 del Decreto 213/2012, de 16 de octubre, de contaminación acústica de la CAPV, por lo que se requirió al Ayuntamiento que completase la documentación con el referido estudio acústico. El 21 de junio de 2021, el Ayuntamiento de Anoeta ha remitido el estudio de impacto acústico, que se incorpora como anexo al Plan Especial, por lo que se ha dado inicio al procedimiento de evaluación ambiental estratégica simplificada, a través del cual se debe determinar, previa consulta a las administraciones, personas e instituciones afectadas, si puede tener efectos significativos sobre el medio ambiente y debe, por tanto, someterse al procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, o no los tiene en los términos que establezca el informe ambiental estratégico.

2. *Objetivos y ordenación propuesta en el Plan Especial de Ordenación Urbana del Área A-1 «Erdialdea».*

El Plan Especial de Ordenación Urbana del Área A-1 «Erdialdea» tiene por objeto modificar la ordenación pormenorizada del Sistema General de Espacios Libres delimitado en dicha Área A-1, con el fin de poder habilitar un nuevo espacio cubierto que dé respuesta a la demanda social existente en ese sentido y cuyas características fueron definidas a través de un proceso participativo llevado a cabo en 2018. El PEOU mantiene el resto de las previsiones de la ordenación vigente, incluido el posible desarrollo de un aparcamiento subterráneo, si bien plantea reubicar los accesos rodados y peatonales al mismo.

EK\CV GAO-I-2021-06275

Anoetako Plan Orokorrean mugatzen duen «Erdialdea» A-1 hiri-lurzoruaren eremuak 21.874 m²-ko azalera hartzen du. Antolamendu xehatuaren gainean HAPBk proposatzen dituen aldaketek Espazio Libreen Sistema Orokorraren azpieremuari eragiten diote –5.160 m²-ko azalera hartzen du–, eta gainerako azpieremuak Plan Orokorraren «Erdialdea» 1. Arearen ficha indibidualizatuak ezarritakoan mantentzen ditu. Espazio Libreen Sistema Orokor hori bi maila desberdinetan kokatuta dauden bi plazek osatzen dute. Lehenengoa «L» itxurako etxebizitza-eraikinak mugatzen du; bertan, udaletxea, eliza eta horren ondoko aparkalekua daude. Bestea hegoaldera dago, eta bertan kirolgune bat eta haurrentzako jolas-gune bat daude. Horren azpian, garaje publiko bat eraikitzeko aukera planteatzen da.

Eremu horretan, HAPBk espazio publiko estali bat ezartzen du, herritarren partaidetza-prozesuan hautemandako beharrei erantzuteko eta Sistema Orokorreko espazio publikoen artean dauden mugikortasun-arazoei irtenbidea emateko, dauden Hirigintza-oztopoak direla-eta.

Indarrean dagoen antolamenduak –Egindako hautabideen analisian «0 alternatibatzat» jotzen da– Ekipamendu-eraikin bat egitea planteatzen du, sestra gaineko gehieneko eraikigarritasun fisikoa 420 m²(t) izango duena, oinplanoan 330 m²-ko okupazioa izango duena eta sotoa, erdisotoa eta beheko solairua izango dituena. Eraikin horretan kokatuko litzateke garajeetako sotoko bi solairuetarako sarbide bertikala.

Herritarren parte-hartze prozesuan onarpen handiena lortu zuen proposamena –«1. alternatiba»– bi plazen artean estalketa ireki bat eraikitzean datza, erabilera anitzetarako balioko duena; aldi berean, Sistema Orokorreko espazio publikoen arteko mugikortasun unibertsaleko arazoak konponduko ditu. Estaldura-elementu berria elizari itsatsita dago, forma angeluzuzena du, 27 x 14,60 metrokoa, eta oinplanoan 394,20 m² inguruko okupazioa du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiari kontsulta egin ondoren, eta Eliza babesteko Zuzendaritza horrek emandako irizpideak kontuan hartuta, Udalak aurreko proposamenaren gaineko saihesbide bat proposatu du –«2. alternatiba»–, elizako fatxadaren estaldura gutxienez 5 metrokoa izan dadin, estalkiaren luzetarako dimentsioa 21,24 metrora murriztuz eta okupazioko azalera 315,80 m²-ra.

HAPBk azken aukera hori bere gain hartu eta garatzen du, eta, gainera, lurpeko aparkalekuaren antolamendua aldatzen du, Indupel kaleko 3. eta 4. zenbakien artean sarbide bat kokatuz eta plazara sartzeko eskailerak aldatuz. Era berean, aparkalekurako oinezkoentzako sarbideak lekuz aldatuko dira, iparraldeko eta hegoaldeko ertzetan. Bestalde, sestra azpiko aparkaleku publikoak egikarituz gero, gaur egun dauden lurrazaleko aparkalekuak kentzea planteatzen da, eremu horretan oinezkoentzako espazio jarraitua lortzeko.

*3. Kontsulta, gaiak eragiten dien administrazioei, pertsona interesdunei eta jendeari oro har.*

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, Plan Bereziaren eta haren eraginpeko lurralde-eremuaren ezaugarrietan oinarrituta, Ingurumen Zuzendaritza Nagusi honek interesduntzat identifikatu ditu eta kontsulta egin die honako administrazio eta erakunde hauei, zeinei organo sustatzaileak prestatutako dokumentazioa bidali baitzien:

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza (GFA).

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza.

El ámbito de suelo urbano A-1 «Erdialdea», delimitado en el Plan General de Anoeta, abarca una superficie de 21.874 m². Las modificaciones sobre la ordenación pormenorizada que plantea el PEOU afectan al sub ámbito Sistema General de Espacios Libres –que abarca una superficie de 5.160 m²– manteniendo el resto de sub ámbitos de acuerdo a lo establecido en la Ficha individualizada Área 1.- «Erdialdea» del Plan General. Dicho Sistema General de Espacios Libres está conformado por dos plazas situadas a dos niveles diferentes. La primera se encuentra delimitada por el edificio de viviendas con forma de «L» donde se ubica el Ayuntamiento, la iglesia y la zona de aparcamiento junto a esta. La otra se sitúa al sur de ésta y en ella se ubica una zona deportiva y un espacio de juego infantil. Bajo la misma se plantea la posibilidad de construir un garaje público.

En este ámbito, el PEOU introduce un espacio público cubierto para dar respuesta las necesidades detectadas en el proceso de participación ciudadana y trata de dar solución a los problemas de movilidad existentes entre los espacios públicos del Sistema General, debido a las barreras urbanísticas existentes.

La ordenación vigente –considerada como «Alternativa 0» en el análisis de alternativas efectuado– plantea la ejecución de un edificio de equipamiento con una edificabilidad física máxima sobre rasante de 420 m²(t), una ocupación en planta de 330 m² y un perfil edificatorio de sótano, semisótano y planta baja. En dicho edificio se ubicaría el acceso vertical a las dos plantas de sótano de los garajes.

La propuesta que obtuvo la mayor aceptación en el proceso de participación ciudadana –«Alternativa 1»– consiste en construir un cubrimiento abierto entre las dos plazas que sirva para usos múltiples, resolviendo, a su vez, los problemas de movilidad universal entre los espacios públicos del Sistema General. El nuevo elemento de cubrimiento se plantea pegado a la iglesia, con forma rectangular, de 27 x 14,60 metros y una ocupación en planta de aproximadamente 394,20 m².

Consultada la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y considerados los criterios aportados por dicha Dirección para la protección de la Iglesia, el Ayuntamiento plantea una variante –«Alternativa 2»– sobre la propuesta anterior, que separa el cubrimiento de la fachada de la iglesia un mínimo de 5 metros y reduce, de ese modo, la dimensión longitudinal de la cubierta a 21,24 m y la superficie de ocupación a 315,80 m².

El PEOU asume y desarrolla esta última alternativa, cambiando además la ordenación del aparcamiento subterráneo, ubicando un acceso al mismo entre los números 3 y 4 de la calle Indupel y modificando las escaleras de acceso a la plaza. Así mismo, se reubican los accesos peatonales al aparcamiento, que se situarán en las esquinas norte y sur. Por otra parte, se plantea que, en el caso de que se ejecuten los aparcamientos públicos bajo rasante, se eliminarían los aparcamientos en superficie existentes actualmente, con lo que se obtendría un espacio peatonal continuo en todo este ámbito.

*3. Consulta a administraciones afectadas, personas interesadas y público en general.*

De acuerdo con lo dispuesto en artículo 30 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, basándose en las características del Plan Especial y del ámbito territorial afectado por el mismo, esta Dirección General de Medio Ambiente ha identificado como interesadas y ha consultado a las siguientes administraciones y organizaciones, a las que remitió la documentación elaborada por el órgano promotor:

— Dirección de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG).

— Dirección General de Agricultura y Equilibrio Territorial de la DFG.

— Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG.

EK\CV GAO-I-2021-06275

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Kudeaketa eta Plangintza Zuzendaritza Nagusia.

— Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolaketako Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza.

— Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Industria eta Energia Trantsizioko Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza.

— Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza.

— IHOBE

— Uraren Euskal Agentzia (URA).

— Gipuzkoako Uren Kontsortzioa.

— Kantaurikoko Ur Konfederazioa.

— Energiaren Euskal Erakundea (EEE).

— Tolosaldeko Hondakinen Mankomunitatea.

— Tolosaldea Garatzen S.A.

— Tolomendi.

— EHNE

— ENBA

— Aranzadi Zientzia Elkartea.

— Eguzki Talde Ekologista.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia Elkartea.

Halaber, dokumentazioa eskuragarri egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren Interneteko atarian (www.gipuzkoaingurumena.eus), jendeak, oro har, eta interesdunek egoki iritzitako ingurumen-arloko ekarpenak egin ahal izateko.

Epea amaituta, eta txosten hau igorri zen egunera arte, erantzun eta ekarpen hauek jaso dira:

* Uraren Euskal Agentziak (URA) idazki bat bidali du, eta bertan adierazten du ezen, agentzia horrek uren arloan dituen eskumen espezifikoen arabera egiten duen txostena gorabehera, eskaera Kantauriko Konfederazio Hidrografikoari helarazi zaiola, hark txostena egitea egokitzat jotzen badu ere.

* Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak adierazi du, kontsultara jartzen den espedienteko dokumentazioa aztertu ondoren, ez dutela ikusten horri buruzko txostena egin beharra dagoenik.

— Dirección General de Gestión y Planificación de la DFG.

— Dirección General de Movilidad y Transporte Público.

— Dirección de Ordenación del Territorio de la DFG.

— Dirección de Obras Hidráulicas de la DFG.

— Dirección de Carreteras de la DFG.

— Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana del Gobierno Vasco.

— Dirección de Atención de Emergencias y Meteorológica del Gobierno Vasco.

— Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco.

— Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular del Gobierno Vasco.

— Dirección de Medio Natural y Cambio Climático del Gobierno Vasco.

— Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco.

— Dirección de Industria y Transición Energética del Gobierno Vasco.

— Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco.

— Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Salud del Gobierno Vasco.

— IHOBE

— Agencia Vasca del Agua URA.

— Consorcio de Aguas de Gipuzkoa.

— Confederación Hidrográfica del Cantábrico.

— Ente Vasco de Energía (EVE).

— Mancomunidad de Residuos de Tolosaldea.

— Tolosaldea Garatzen S.A.

— Tolomendi.

— EHNE

— ENBA

— Aranzadi Zientzia elkartea.

— Grupo ecologista Eguzki.

— Ekologistak Martxan.

— Haritzalde Naturzaleen Elkartea.

— Itsas Enara Ornitologia elkartea.

Así mismo, la documentación ha estado accesible en el portal de Internet de la Dirección General de Medio Ambiente, www.gipuzkoaingurumena.eus, para que el público en general y cualquier interesado pudiera realizar las aportaciones de carácter ambiental que considerase oportunas.

Finalizado el plazo y hasta la fecha de emisión de este informe, se han recibido las siguientes respuestas:

* La Agencia Vasca del Agua URA remite escrito en el que manifiesta que, con independencia del informe que emita dicha agencia de acuerdo con sus competencias específicas en materia de aguas, la solicitud ha sido trasladada a la Confederación Hidrográfica del Cantábrico por si la misma estima conveniente emitir informe.

* La Dirección de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco señala que, una vez analizada la documentación del expediente, no considera necesario emitir informe al respecto.

EK\CV GAO-I-2021-06275

* Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak, bere aldetik, txosten teknikoa egin du antolamenduaren eremuan babes zibilarekin lotuta dauden arriskuei buruz. Horien artean, arrisku sismikoa –V-VI intentsitate-area– eta salgai arriskutsuen garraiotik eratorritakoa aipatzen ditu, eta planaren eremua Madril-Irun trenbidearen 100 metroko eragin-bandaren barruan kokatzen da, arrisku ertaina baitu. Era berean, eguneko prezipitazioaren isomaximo-balioak 250 mm-tik 275 mm-ra bitartekoak direla adierazi du, 500 urteko errepikapen-aldiarekin, eta balio horiek kontuan hartu behar direla drainatzeak diseinatzerakoan.

* Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak bere txostenean adierazten duenez, Planaren aurreikuspenak zuzenak dira, baina honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

— Ez dago argi Plan Bereziak aldatu beharreko eremua Espazio Libreen Sistema Orokorrari buruzkoa den edo Area osoa hartzen duen.

— Plan Bereziak 1 Arearen Hirigintza-fitxa aldatzen du. Fitxako zehaztapen batzuk aldatzeko, Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa bat izapidetu behar da, eta ezin da plan berezi baten bidez egin.

— Zuzkidura publikoak egikaritzeko bi jarduketen mugaketa ez da argi geratzen.

— Aparkalekuan sartzeko proposamen berria ez dago behar bezala planteatuta, eta arazoak sor daitezke bizilagunekin.

— Estalkiaren ezaugarriak arautu beharko lirateke.

— Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak idazki bat bidali du, eta bertan adierazi du Euskal Y-aren Hernialde-Zizurkil tartea Anoetako udalerritik igarotzen dela zati batean, eta trazadura hori plangintzaren berrikuspenean sartu behar dela.

Jasotako erantzunak Anoetako Udalari bidaliko zaizkio, ingurumen-txosten estrategikoarekin batera, eta geroagoko erantzunen bat jasoz gero, hori ere ahalik eta lasterren bidaliko da, Plan Berezia idaztean eta izapidetzean kontuan har dadin.

*4. Ingurumen ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen V. eranskinean jasotzen diren irizpideen araberako azterketa.*

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 13ko 21/2013 Legearen 31. artikuluak adierazten duenez, ingurumen organoak ebatziko du ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatua behar duten planek ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura bete behar duten ala ez, lege horren V. eranskinean zehaztutako irizpideak aplikatuta. Irizpide horiek planaren ezaugarrietan, eraginetan eta eragina jasan lezakeen arean oinarritzen dira.

Ingurumen-txosten estrategiko honen 2. atalean deskribatzen den bezala, Plan Bereziaren xedea da Anoetako hirigunean dagoen hiri-lurzoruko eremu baten –A-1 «Erdialdea» Area– Antolamendu xehatua aldatzea, eremu estali berri bat ahalbidetzeko, zentzu horretan dagoen eta haren ezaugarriak partaidetza-prozesu baten bidez zehaztu ziren gizarte-eskaerari erantzuteko. Plan Bereziak indarrean dagoen antolamenduaren gainerako zehaztapenak mantentzen ditu, lurpeko aparkaleku bat eraikitzeko aukera barne, aparkaleku horretarako sarbideen kokapena aldatu arren.

A-1 «Erdialdea» Area Hozpel kaleak mugatzen du iparraldean (2. eta 3. areak), hegoaldean Iturburu kaleak (7. area eta 8. sektorea), ekialdean trenbidearen lubakiaren mendebaldeko mugak eta mendebaldean Solkorre kaleko etxebizitza-eraikinen atzealdeak. 21.874 m²-ko azalera hartzen du, eta horietatik 14.432 m² bizitegi-erabilera orokorrekoak dira, 1.215 m² Ekipa-

* La Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología del Gobierno Vasco, por su parte, emite informe técnico en torno a los riesgos existente en relación a la protección civil en el ámbito de ordenación. Entre ellos, menciona el riesgo sísmico –área de intensidad V-VI– y el derivado del transporte de mercancías peligrosas, situándose el ámbito del plan dentro de la banda de afección de 100 metros de la línea de ferrocarril Madrid-Irun, que presenta un riesgo medio. Así mismo, señala que los valores isomáximos de precipitación diaria se sitúan entre 250 mm y 275 mm, con un periodo de recurrencia de 500 años y que dichos valores deben ser tenidos en cuenta a la hora de diseñar los drenajes.

* La Dirección de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa señala en su informe que considera correctas las previsiones del Plan, pero que deben tenerse en cuenta los siguientes aspectos:

— No queda claro si el ámbito a modificar por el Plan Especial se refiere al Sistema General de Espacios Libres o abarca el conjunto del Área.

— El Plan Especial modifica la ficha urbanística del Área 1. La modificación de ciertas determinaciones de la ficha requiere de la tramitación de una modificación del Plan General de Ordenación Urbana y no se puede realizar a través de un Plan Especial.

— No queda clara la delimitación de las dos actuaciones de ejecución de dotaciones públicas.

— La nueva propuesta de acceso al aparcamiento no se encuentra adecuadamente planteada y pueden surgir problemas con los vecinos.

— Deberían regularse las características de la cubierta.

— La Dirección de Infraestructuras de Transporte del Gobierno Vasco remite escrito poniendo de manifiesto que el tramo Hernialde-Zizurkil de la Y Vasca discurre parcialmente por el municipio de Anoeta, debiéndose incorporar dicha traza a la revisión del planeamiento.

Las respuestas recibidas serán remitidas al Ayuntamiento de Anoeta, junto con el informe ambiental estratégico, y en caso de recibirse alguna respuesta posterior, ésta también será remitida en el plazo más breve posible, a fin de que sea tenida en cuenta en la redacción y tramitación del Plan Especial.

*4. Análisis en base a los criterios recogidos en el anexo V de la Ley 21/2013, de evaluación ambiental.*

Según señala el artículo 31 de la Ley 21/2013 de 13 de diciembre, de evaluación ambiental, el órgano ambiental resolverá el sometimiento o no de los planes sujetos a evaluación ambiental estratégica simplificada, a un procedimiento de evaluación ambiental estratégica ordinaria, aplicando los criterios determinados en el anexo V de dicha Ley, criterios que se basan en las características del plan, de los efectos y del área probablemente afectada.

Tal y como se describe en el apartado 2 de este informe ambiental estratégico, el Plan Especial tiene por objeto modificar la ordenación pormenorizada de un ámbito de suelo urbano –Área A-1 «Erdialdea»– situado en el caso urbano de Anoeta, para posibilitar un nuevo espacio cubierto que dé respuesta a la demanda social existente en ese sentido y cuyas características fueron definidas a través de un proceso participativo. El Plan Especial mantiene el resto de determinaciones de la ordenación vigente, incluyendo la posible construcción de un aparcamiento subterráneo, si bien modifica la ubicación de los accesos a dicho aparcamiento.

El Área A-1 «Erdialdea» está delimitada al norte por Hozpel kalea (Áreas 2 y 3), al sur por Iturburu kalea (Área 7 y Sector 8), al este por el límite oeste de la trinchera del ferrocarril y oeste con la parte trasera de los edificios de viviendas de Solkorre kalea. Abarca una superficie de 21.874 m², de los cuales 14.432 m² presentan un uso global residencial, 1.215 m² per-


EK\CV GAO-I-2021-06275

menduen Sistema Orokorrekoak dira eta 5.160 m² Espazio Libreen Sistema Orokorrekoak. Plan Bereziak Espazio Libreen Sistema Orokorraren antolamenduan soilik egiten ditu aldaketak.

Antolatutako espazio osoa, bai eta haren hurbileko ingurunearen zatirik handiena ere, espazio urbanizatua da, nahiz eta, mendebaldean, Areak «Urbanizaezin» gisa sailkatutako lurzoruarekin eta nagusiki nekazaritzarako erabiltzen den lurzoruarekin egiten duen muga. Beraz, bai indarrean dagoen antolamenduak, bai Plan Berezian aurreikusitakoak, ez dute lurzoru urbanizatu eta artifizializatua handitzen egungo egoerarekin alderatuta. Era berean, ez Espazio Libreen Sistema Orokorrak okupatutako espazioak, ez Areak berak, ez dute berdegune garrantzitsurik, eta azpiegitura berdea, eremu horretan guztian, elizaren hegoaldeari itsatsitako lorategi txiki batera eta Sistema Orokorrak banatutako hiri-zuhaitz gutxi batzuetara mugatzen da.

Eremuak ez du ur-ibilgu iraunkorrik, eta ez dator bat Natura 2000 Sareko edo EAEko Gune Babestuen Sareko guneekin. Era berean, area ez dago EAEko Azpiegitura Berdearen Sareko egiturazko ezein elementutan, ezta Gipuzkoako Azpiegitura Berdearen Sarean sartzeko proposatutako ezein elementutan ere. Era berean, ez da ikusi, ez eta ingurunean adierazi ere, Espezie Mehatxatuen Euskadiko Katalogoan sartuta dauden katalogatutako edo mehatxatutako animalia- edo botanika-espezierik edo onartutako Kudeaketa Plana duten animalia-espezierik.

Proposatutako erabilera mugatzen duten arriskuei edo faktoreei dagokienez, ez da uholde-arriskurik ikusten, eta arrisku sismikoak, sute-arriskuak, akuiferoen kutsadurarekiko eta klima-aldaketarekiko kalteberatasunarekin lotutako arriskuak txikiak edo ez oso esanguratsuak dira. Bestalde, ez da egiaztatu lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dauden edo egon diren lurzorurik dagoenik.

